

1. FASEA: 2059.3. HOM, "ARTIA"

III ATALA PLANGINTZA



Oñatiko Udala



EGILEA:



eguzki-ihintza
Ingurumen Zerbitzuak SL

III ATALAREN AURKIBIDEA

PLANGINTZA	2
1.-PLANGINTZA OROKORRA:	2
1.1.- BASOGINTZA EZAUGARRIAK:	2
1.1.1.- KUDEAKETA MOTA ETA BASOGINTZA TRATAMENDUEN IRIZPIDE NAGUSIAK:	2
1.1.2.- ESPEZIEN HAUTAKETA:	6
1.1.3.- ETEKIN METODOLOGIAREN HAUTAKETA:	7
1.1.4.- UNADA TIPOLOGIA BAKOITZEAN EGINGO DEN BASOGINTZA TRATAMENDUEN DESKRIAPENA:	7
1.2.- EZAUGARRI DASOKRATIKOAK:	14
1.2.1.- ANTOLAMENDU METODOAREN HAUTAKETA:	14
1.2.2.- INDARRALDIAREN ZEHAZTAPENA:	14
1.2.3.- ADIN NATURALEN OREKA:	14
1.2.4.- USTIAPEN AUKERAREN KALKULOA (POSIBILITATEA):	15
2.-PLANGINTZA BEREZIA	17
2.1. UNADA MAILAKO BASOGINTZA TRATAMENDUAK:	17
2.2. UNADEN KOADERNOA:	23
2.3. BALANTZE EKONOMIKOA:	23

III. ATALA

PLANGINTZA

1.-PLANGINTZA OROKORRA:

Plangintza orokorraren helburua Artia mendian herri partaidetzaren bidez finkatu diren helburuak lortzeko eta ikertu den mendiaren egoeraren arabera egingo den kudeaketa mota , baso tratamendu eta bestelako ekintzen irizpide nagusiak finkatzea da. Ildo honi jarraituz, herri partaidetzan eta udal teknikari eta Oñatiko udalarekin adostu ziren helburu eta irizpide nagusiak aipatzen dira:

- 1.- Bioaniztasunaren babesa.
2. Bertako landarediaren berreskurapena; espezie arrotz gehiago ez sartzea.
- 3.- Birsorkuntza naturalean oinarrituko den basogintzan oinarritzea.
- 4.- *Quercus* generoko espezieei lehentasuna ematea.
- 4.- Aisialdia eta ikerketa sustatuko duen kudeaketa egitea.
- 5.- Mendi pista berriak ez eraikitzea.
- 6.- Mendiak izango dituen hobekuntza eta mantenu-lanen gastuak, menditik aterako diren produktuen bidez asetzea.

1.1.- BASOGINTZA EZAUGARRIAK:

1.1.1.- KUDEAKETA MOTA ETA BASOGINTZA TRATAMENDUEN IRIZPIDE NAGUSIAK:

XIX. menderarte egindako egur ustiapenak eta ondorengo erabilerak (abeltzantza) egun dugun paisai eta basoen isla izanik, Artia mendian ageri diren *Quercus* generoko unada urri eta ale hauen ezaugarri txiroak honen fruitu dira. Izan ere, aintzina egin ziren egur mozketak ez ziren basogintza jasangarri batetan oinarritzen, eta ustiatzen zen alea edo moztzen ziren haritzak, momentuan zegoen beharra asetzeko aukeratzen ziren, askotan, ale onenak moztuz. Moztu behar den zuhaitzaren hautaketa honi, **hautaketa negatiboa** deritzo. Ustiapen eredu honek, irisgarritasun oneneko lekuetan balio handiko egurren eza ekartzeaz gain, bertako haritz, pago eta bestelako hostozabal basoen egitura eta kalitateari ere galerak ekarri dizkie. Aipatu beharra dago, ustiapenen jasangarri-erari izan zirela ikazgintza, karobi e.a.-etan egindakoak, hau da, egun oraindik ikus ditzakegun zuhaitz mugarrotuen bitartez egindakoak ain zuzen.

HAUTAKETA POSITIBOA, ETORKIZUNEKO ZUHAITZEN HAUTAKETA:

Aintzina egindako akatsetan erori ezean, ezinbestekoa da **hautaketa positiboan** oinarritzen den basogintza ekintzak egitea; hau da, ale onenen (etorkizunekoak) sustapenean oinarritzen diren baso tratamenduak egitea. Beraz, etorkizunekoak izango diren zuhaitz onenak edo

sustatu beharrekoak aukeratzeko lehenik eta behin basoan menperatzaileak edo kodominantzia duten zuhaitzen artean, zuhaitzen kemen eta bizitasunari begiratu beharko diogu, edozein kalte, zailtasun edo estresari aurre egiteko ale prestatuena baitira. Finkatutako helburuei jarraituz eta, batez ere unada koadernoan horrela zehaztu den kasuetan (unadetan), bizitasun eta kementsuak diren bi aleen aurrean, espezieari erreparatuko diogu, hurrenez hurren, haritz (*Quercus sp*), Hagin (*Taxus sp*), Gereziando (*Prunus sp*), Otsalizar eta hostazuri (*Sorbus sp*), Astigar (*Acer sp*), Pago (*Fagus sp*), Gorosti (*Ilex sp*), eta azkenik koniferoei (*Pseudotsuga sp*, *Larix spp*, *Picea sp*, , *Pinus sp* ...) lehenetasuna emanez. Azkenik, zuhaitzaren morfologiari begiratuko diogu, balio ekonomikoa izan dezakeen zuhaitza, orokorrean, baliorik ez duenaren aurrean aukeratuz. Kalitatezko morfologiari dagokionez, aukeratuko dugun zuhaitzaren 3 ezaugarriei erreparatu beharko diogu:

- 1.- Zuhaitzaren enborraren zuzentasuna.
- 2.- Enborraren lehenengo 5-10 metrotan adarrik edo korapirorik ez izatea.
- 3.- Enbor azalaren biraketarik ez izatea.

Aipatu beharra dago, zuhaitzen morfologia balio ekonomikoari beti lotuta ez dagoela, hazi ekoizpena bilatzen badugu kopa handiko zuhaitza txikia duenaren aurrean aukeratuko dugulako eta, era berean, tamaina handiko zuhaitz zaharrek bioaniztasunarekin duten harremanarengatik aukeratuak (ez mozteko) izan daitezkeelako. (adibidez, zuhaitz mugarrotu guztiekin gertatuko dena).

BASOGINTZA EKINTZETAN EGIN BEHARREKO ZUHAITZEN MARKAZIOA:

Bakanketa selektiboetan egin beharko diren markazioak, bi motatakoak (bi kolorekoak edo marka mota desberdinekoak) izan beharko dira: Etorkizuneko zuhaitzen markazioa eta moztu



beharreko aleen markazioa alegia:

A)-Etorkizuneko zuhaitz bat hautatzerakoan, babestu beharreko zuhaitzaren izaera emango dion markaz adierazi beharko da, bakanketa lanak egitera etorriko diren langileek erraz identifika dezaten. Ezinbestekoa izango da bakanketa lanetan zuhaitz hauek ez kaltetzea.

28. Irudia: (Ezkerrean, argazkiaren erdialdean, bi alertze tartean, bizitasun ona eta kalitatezko egurra ekoizteko ezaugarri ezin hobeak dituen haritz kandudunaren alea, hau da, enbor zuzena eta adar eta enbor azalaren biraketa eza. (ART-B30 unadan, Etorkizuneko zuhaitzaren adibidea).

B)- Moztu beharreko aleak, beste kolore edo marka mota batez markatu beharko dira, bota beharreko norabidea markatuz. Moztu beharreko zuhaitzak etorkizunekoak kaltetzeko arriskua

badu, okerturik dagoelako, zuhaitzaren pisua deskonpentsatuta dagoelako e.a., zuhaitza moztu beharrean, eraztundu egingo da. Moztuko den zuhaitza zein den erabakitzekeo garaian, etorkizuneko zuhaitzaren kopari erreparatu beharko diogu, itzala edo lehia egiten dion zuhaitza kenduz. Etorkizuneko zuhaitzaren azpian geratzen diren menperatutako zuhaitzak utzi egingo dira, etorkizuneko zuhaitzaren inausketa naturalari laguntzen baitiote.

1.1.1.1.- BIOANIZTASUNA EMENDATZEKO BASOGINTZA:

Bioaniztasunaren babesa eta hobekuntza, helburu orokorra izanik, Artia HOM egin beharreko basogintzaren irizpide nagusiak hurrengoak dira:

1.- Baso mistoen sustapena: baso mistoek baso egituraren dibertsifikazioa ekartzeaz gain, landaredi eta faunaren harrera zabala emendatzen dute. Artia HOMaren eremu osoa irizpide honen eraginpean izango da.

2.- Birsorkuntza naturala artifizialaren aurrean: Bertako landarearen birsorkuntza naturalari lehentsuna emango zaio. Era berean, egitura aldetik irregulartasuna eta dibertsifikazioa bilatu nahi bada, baita espezie aniztasunaren kasuan ere, birsorkuntza naturala lortzeko epeak ahal diren luzeenak izango dira (Smart eta Andrews 1985; Huter 1999; De Graaf eta Miller, 1996).

Birsorkuntza natural nahikoa lortzen ez den unadetan, birsorkuntza artifiziala edo aldaketa erabiliko da. Kasu hauetan, erabili beharreko hazi edo landarearen jatorriari erreparatuko zaio, ahal den kasuetan behintzat, tokiko aleen erabilera bilatuz. Birsorkuntza naturalean gertatzen den modura, landaketa distantziak, txikiak, hau da, dentsitate altukoak izango dira. (2000-2500 ale/ha ingurukoak.)

3.- Gainbeheran dauden zuhaitz eta egur hilaren presentzia: mendian zutik (snag) eta lurrean (log) egur hilaren presentzia sustatuko da. Halaber, bilatuko den egur hila ez da egindako baso tratamenduen hondakinetan oinarrituko, zuhaitz batzuen gainbehera prozesuan baizik. Horretarako kontuan hartu beharreko irizpide eta metodologiak ondorengoak dira:

Gainbeheran dauden ale sakabanatuak: Erreserba izango diren eta beraz, ustiapenetik at geratuko diren zuhaitz sakabanatuak bilatuko dira. Hauek, hilda edo gainbera prozesuan dauden diametro handieneko aleak izan beharko dira. Gainbehera prozesura bideratuko diren aleen presentzia erabakitzen den unadetan, 15 -20 zuhaitz/ha-ko dentsitatea utziz egingo da.

Gainbeheran dauden ale multzoak: Aurrekoan bezala baina kasu honetan multzoka, ustiapenetik at geratuko diren zuhaitzen kopuru eta hautaketa irizpideak jarraituko dira.

Kudeaketatik at geldituko diren unadak: Garapen naturalera utziko diren unada hauen azalera ez da mendiaren hedaduraren % 3 eta 5-a baino txikiagoa izango (Schwedtner, 1998; Garmendia et al., 2006). Unada hauek, kalitate desberdineko kokalekuak barneratzea komeni da. Kasu honetan, kudeaketatik at geratuko diren ART-A06 eta ART-C11 unadek, Artia mendiaren %7,46 osatzen dute.

4.- Txanda edo heldutasun adinaren atzerapena: Baso masen bizitasun eta birsorkuntza sortzeko ahalmenaren iraukortasuna helburu duen txanda edo heldutasun adina, irizpide fisiko, teknologiko eta ekologikoen arabekoak izatea komeni da (Kimmins, 1987; Madrigal, 1994). Beraz, txanda edo heldutasun adin hauen zehaztapena ondorengo irizpide baten arabera egingo da unadaz unada:

Txanda edo heldutasun adin ekologikoa: Birsorkuntza mozketaren aurretik lurzoruak zituen ezaugarri edafikoak berreskuratzeko behar duen denbora epearen arabekoa izango da. Denbora epe hau, espezie errenta maximoaren txanda baino luzeagoa estimatzen da.

Txanda edo heldutasun adin teknologikoa: Kalitatezko ezaugarri morfologikoak dituzten diametro handiko zuhaitzak lortzeko behar den epea, hau da, kalitatezko egurraren ekoizpena lortzeko behar den epea izango da. Hau, baso masa irregularretan zehaztu diren 70 zentimetroak dira.

Txanda edo heldutasun adin fisikoa: Zuhaitz edo baso masen bizitasun edo birsorkuntza ahalbidetzeko duten gaitasunaren gainbehera gertatu baino lehen finkatzen den denbora epea. Hau adibidez, pagomotz unada batzuetan finkatuko den txanda edo heldutasun adin epea da.

Ondoren, txanda edo heldutasun adinaren atzerapenak, ekarriko dituen abantail batzuk (Curtis, 1997) zehazten dira:

- Ondorengotza garatu aldiekin harremana duten espezieen habitat kalitatearen hobekuntza.
- Balantze hidrikoaren hobekuntza arto mailan.
- Karbono finkapena emendatzea, ekoizpen katea eta egurraren erabilera batera kontuan hartzen badira (Liski et al., 2001; Bravo, 2007)
- Kalitate hobegoko materialen ekoizpena: Honek, abantaila ekonomikoaz gain, beste onura gehigarri batzuk ditu; ustiapen azalera txikitu eta ekintza maiztasuna handitzeko aukera ematen baitu, inpaktu txiki eta kalitatezko tratamendu errentagarriak ahalbidetuz.

5.- Azpibasoaren eta menperatutako zuhaitzen babesa: Baso masen espezie aniztasuna emendatzeko helburuarekin, orokorrean, planifikatuko diren basogintza tratamendu guztietan, azpibasoan dauden zuhaixka espezie desberdinen eta menperatuta dauden zuhaitzak

babesteko irizpidea izango da. Beraz, unada desberdinetan egingo diren hobekuntza bakanketak, goi estratuan dauden aleen arteko lehiaren murrizketan oinarrituko dira.

6.- Habitat berezi, ibarbaso eta erreken babesa: Aipatu habitat berezi bat barneratzen dituzten unadetan, hauek babesteko irizpideak hartuko dira, higadura sor dezaketen ekintzak murriztuz, baso tratamenduak behar bada arinduz e.a.

Unada koadernoaren kartografia irudian, ibai eta errekek marrazteaz gain, "Bioaniztasun adierazleak" eta "Lehentasunak" ataletan azpimarratu dira.

1.1.2.- ESPEZIEN HAUTAKETA:

Unada bakoitzean zehaztu beharreko espezie nagusia(k), ondorengo irizpideak jarraituz hautatuko dira:

Bertako landarediaren berreskurapena: Birsorkuntza garaian dauden edo indarraldian birsorkuntza hasiko diren espezie aloktonoak dituzten unadetan, bertako espezieak espezie nagusi hautatuko dira, beti ere, aukera dagoenean, *Quercus* generoko espezieei lehentasuna emanaz. Unada hauetan birsorkuntza lortzeko epea 20-30 urte bitartekoa izango da.

Garapenean dauden birlandaketak: Garapen garaian dauden birlandaketen espezie nagusia errespetatuko da. Beraz, aurretik egin diren inbertsioen amortizazioarekin jarraituko da tokian tokiko espeziearen garapena emendatuko dituzten basogintza ekintzak aurrera eramanez.

Arrazoi fitosanitarioak: Zuhaitz espezie batzuk dituzten arazo fitosanitarioak direla eta, ez dira espezie nagusi gisa aukeratuko eta hauen presentzia mendian bigarren mailako edo espezie laguntzaile izatera mugatuko dira. Adib: gaztain eta zumarrak.

Bestalde, lehentasunezkoak diren haritzek izan ditzaketen ohiko arazo fitosanitarioen behaketa egitea komeni da. Hauen artean, oidioa (*Microsphaera alphitoides*), tinta (*Phytophthora cinnamomi*) eta txankroa (*Botryosphaeria stevensii*) azpimarratzen dira.

Pagadien kasu berezia: Artia mendiak duen pagadi azalera ikusita eta monoespezifikotasunera jotzen duen espeziea izanik, pagoa, nahiz eta espezie nagusizat hartu, pagadietan aurki ditzakegun espezie laguntzaileei ere lehentasuna emango zaie. Unada bakoitzean aukeratutako espezie nagusia unada koadernoan zehazten da.

1.1.3.- ETEKIN METODOLOGIAREN HAUTAKETA:

Baso garaia, egonkortasun eta naturaltasun handieneko baso masen funtsezko forma da, honen zikloak modu egokian erabiltzen badira. (Burschel eta Huss, 1987; Lanier, 1994; Junta de Castilla y León ed., 1999). Beraz, modu orokorrean, unada guztietan bilatuko den baso masen funtsezko forma, baso garaia edo haziz jaiotzen diren basoena izango da.

1.1.4.- UNADA TIPOLOGIA BAKOITZEAN EGINGO DEN BASOGINTZA TRATAMENDUEN DESKRIBAPENA:

1. BERTAKOTZE PROZESUAN HASITAKO KONIFERO BIRLANDAKETAK (200,68 ha):

Hiru azpitipologiaetan (txikia, ertain eta maila handia) sailkatu den tipologia hau koniferoen birlandaketan konposizio monoespezifikoa bertako hostozabalen birsorkuntza naturalari esker konposaketa mistoa izatera pasatu diren unadak barneratzeagatik bereizten da.

Egin beharreko basogintza tratamenduen deskribapena:

Unada hauetan egin beharreko Goitikako Bakanketa Selektiboek hobekuntza eta birsorkuntza mozketak izatera izango dute, hau da, baso-masa irregularren entresakarena hain zuzen. Tipologia hauetan barneratu diren unaden heterogeneotasuna dela eta, egoera desberdinetan basogintza tratamenduen bidez lortu beharreko eraginak edo emaitzak zehazten dira:

Birsorkuntza oparoa lortzea: Hostozabalek egitura irregularra duen baso masa sortu badute ere, orokorrean baso-masa irregular orekatura izatera ez dira iritsi. Izan ere, azpitik datozen hostozabal ale gazteak (zangar baso eta haga basoak), orokorrean ugariak dira baina birsorkuntza berri eta birlandaketa adin naturaleko aleak urriak dira (ikusirik lortu beharreko baso irregular orekatuaren egitura: 29. Irudia). Beraz, egin beharreko bakanketa lanek, eremu txikietan birsorkuntza berri oparoa lortzea bilatuko dute. Horretarako, haritz eta pago gazteen aurrean, 60 urtetik gorako aleek hazi ekoizpen handiagoa dutela kontuan hartuko da eta birsorkuntza sustatzeko konifero 1-3 ale moztuz irekiko den soilgunea, hostozabal ale heldu hauen inguruan edo aldapan behera irekitzea komenigarria da. Birsorkuntza oparoa duen eremu bat lortzean, dentsitate handian mantendu eta hurrengo bakanketa lanek eragin ditzaketan kalteez babestuko da. Dentsitate altua duten eremu hauetan egingo diren bakanketa lanak, zuhaitzek 7-9 metroko batz besteko altuera izatean hasiko dira.

Basobera baso garai bihurtzea: Unadetan aurki ditzakegun hostozabal ale batzuk basobera jatorrikoak izanik, bakanketa lanek andui bakoitzetik ateratzen diren ale kopurua murriztu behar dute. Eraldatze prozesu hau pixkanaka egin behar den prozesua dela kontuan hartuz, ale onenak etorkizunekoak kontsideratuz, gehienez andui bakoitzean dauden aleen erdia moztuz egingo da, beti ere, soilgune handirik ireki gabe.

Quercus generoko aleei lehentasuna: Orokorrean, lehia handia jasaten ari diren eta bizitasun ona duten *Quercus* generoko aleei lagunduko zaie. Hau, *Quercus* generoko alearen kopari

traba egin edo menperatzen dion zuhaitza bakarra moztuz egingo da (lehiakide bakarra edo erdia, etorkizuneko *Quercus* generoko zuhaitz bakoitzeko).

Kalitatezko egurraren ekoizpena: Ezinbestekoa da hautaketa positiboan oinarritzen diren bakanketak egitea. Etorkizunari begira, kalitatezko egurra ekoitzi ahal izateko, adarrak gabeko enbor luze eta zuzenei lehentasuna emango zaizkie. Lehia handia duen kalitatezko pago bakoitzari, 1-2 lehiakide kenduko zaizkie. Lehia handia duen kalitatezko *Quercus* generoko ale bakoitzari, 1-0,5 lehiakide kenduko zaio.

Birlandaketaren garapena: Hostozabal dominante eta kodominante aleak eskasak diren eremuetan, birlandaketaren garapena sustatuko duten bakanketak (goitikako bakanketa selektiboak) egingo dira eta, beraz, kasu honetan etorkizuneko aleak, konifero ale onenak izango dira.

Gainbeherarako erreserbatuko diren aleak: Bioaniztasunaren hobekuntza helburu nagusienetakoa izanik, unada koadernoan horrela zehazten den kasuetan, konifero ale batzuk, gainbeherarako erreserbatuko dira.

Baso-masaren bertakotze prozesuarekin jarraitzea: Orokorrean, konifero aleen mozketan oinarrituko diren bakanketa lanak izango dira, pixkanaka, hostozabalek menperatuko duten baso-masa misto irregular orekatua lortzeko. Aitzitik, etorkizuneko aleari lehia egiten dion alea hostozabala bada, hostozabala moztuko da.

Egin beharreko basogintza tratamenduen intentsitatea: Unada bakoitzean egin beharreko bakanketaren intentsitatea unada koadernoan zehazten bada ere, orokorrean, tipologia honetan egin beharreko tratamenduak pisu txikikoak (AB-aren %10-20-aren murrizketa) izango dira. Bestalde, aipatutako emaitzak edo eraginak lortzeko egoera desberdin bakoitzean aukeratu beharreko etorkizuneko zuhaitzen portzentaia, unada bakoitzean, baso masaren araberakoa izango da.

Egin beharreko basogintza tratamenduen maiztasuna: Bakanketa tratamenduen maiztasuna hazkunde azkarreko eta ertain-gel espezieetan, hurrenez hurren 6-10 eta 10-15 urteko bitartekoak izango dira.

2. BIRSORKUNTZA GARAIAN SARTUKO DIREN KONIFERO TANTAIK (22,89 ha):

Tipologia honetan, bertako hostozabalen birsorkuntza uniforme eta oparoa lortzea izango da helburu nagusia. Horretarako, unada hauetan egingo diren birsorkuntza mozketak, tolerantzi handiko edo ertaineko espezieen birsorkuntza naturala bilatuko duenez, unadaren trinkotasuna modu uniformean arinduz eta azpibasoan dauden bertako hostozabalak (*Quercus* generokoei lehentasuna) babestuz egingo dira. Zuhaitzi heldu guztiaren mozketak, bi edo hiru fasetan egin beharko da, unada koadernoan horrela zehazten den kasuetan, gainbeherarako ale batzuk utziz.

Lehenengo fasean moztu beharreko aleak, ondorengo irizpideak jarraituz hautatuko dira:

- 1.: Intereseko hostozabal hazi ekoizle multzo baten inguruko aleak.
- 2.: Birsorkuntza gaztearen (0,5-1,5 metroko altuera) inguruko edo tarteko aleak.
- 2.: Baso masaren trinkotasunaren murrizketa jarraia lortzeko beharrezkoak diren aleak.

Egin beharreko basogintza tratamenduen intentsitatea: Unada bakoitzean egin beharreko bakanketaren intentsitatea, egun dagoen hostozabalen presentziaren arabera izango da. Birsorkuntza gazte ugari dagoen unadetan, AB-aren %50-60 moztu ahalko da. Besteetan aldiz, hostozabalen birsorkuntza eskasagoa den unadetan, AB-aren %20-30 moztuz egingo da. ART-A08 unadan, erabateko soilketa egingo da. Ondoren, bi urteko epean, haritz, urki eta astigar aleekin birlanatu da.

Egin beharreko basogintza tratamenduen maiztasuna: Birsorkuntza mozketaren fase desberdinen arteko maiztasuna, birsorkuntzaren garapenaren arabera izango da. 0,5-1,5 metroko birsorkuntza oparoa lortzean, gelditzen diren koniferoak mozteko aukera izango da (gainbeheran utziko direnak salbu). Birsorkuntza lortzeko, gehinez, 20 urteko epea jartzen da. Epe honetan birsorkuntza lortzen ez bada, bertako landarediaren birlanaketari ekingo zaio.

3. GARAPENEAN DAUDEN KONIFERO TANTAIK (98,49 ha):

Tipologia honetan bildutako unadak, hobekuntza mozketen izaera izango duten goitikako bakanketa selektiboak jasango dituzte eta, beraz, aleen arteko lehiaren murrizketak eragingo duen garapena sustatuko da, diametro handiena duen lehiakidearen mozketaren bidez. Orokorrean, bakanketa lanak, azpibasoa dauden hostozabalak ahal den gutxien kaltetuz egingo dira eta, halaber, haga baso adin naturalean edo gainditzen duten intereseko espezie aleen garapena emendatuko da. Intereseko espezie hauek, hurrenez hurren, haritz (*Quercus sp*), *Erkametz (Quercus fajinea)*, *Hagin (Taxus sp)*, *Gereziondo (Prunus sp)*, *Otsalzar eta hostazuri (Sorbus sp)*, *Astigar (Acer sp)*, *Gorosti (Ilex sp)*, lizar (*Fraxinus sp*), *Altxa (Alnus sp.)* *Pago (Fagus sp)*, e.a. dira, hau da, bertako hostozabal espezieak. Helburu espezifikoa, hurrengoak dira:

- Birlanaketa monoespezifikoen espezie aniztasuna areagotzea.
- Etorkezunean egin behar den espezie aldaketa erraztea.
- Intereseko espezieen lurreko hazi erreserba emendatzea.
- Tokian tokiko mikrohabitaten ugartasuna ementzea.

Egin beharreko basogintza tratamenduen intentsitatea: Unada bakoitzean egin beharreko bakanketaren intentsitatea unada koadernoan zehazten bada ere, orokorrean, tipologia honetan egin beharreko tratamenduak pisu ertainekoak (AB-aren %15-25-aren murrizketa) izango dira.

Egin beharreko basogintza tratamenduen maiztasuna: Bakanketa tratamenduen maiztasuna 8-10 urte bitartekoa izango da.

4. GARAPENEAN DAUDEN KONIFERO BEHE-TANTAIK (79,07 ha):

Tipologia honetan bildutako unadak, hobekuntza mozketen izaera izango duten behetik egindo diren bakanketa selektiboak jasango dituzte eta, beraz, aleen arteko lehiaren murrizketak eragingo duen garapena sustatuko da. Orokorrean, bakanketa lanak, azpibasoa dauden hostozabalak ahal den gutxien kaltetuz egingo dira eta, halaber, haga baso adin naturalean edo gainditzten duten *Acer* (Astigar), *Sorbus* eta *Quercus* e.a. generoko ale dominante eta kodominanteek konifero aleen aurrean lehentasuna izango dute.

Egin beharreko basogintza tratamenduen intentsitatea: Unada bakoitzean egin beharreko bakanketaren intentsitatea unada koadernoan zehazten bada ere, orokorrean, tipologia honetan egin beharreko tratamenduak pisu ertainekoak (AB-aren %15-25-aren murrizketa) izango dira.

Egin beharreko basogintza tratamenduen maiztasuna: Bakanketa tratamenduen maiztasuna 8-10 urte bitartekoa izango da.

5. GARAPENEAN DAUDEN HAGA BASO ADINEKO KONIFEROAK (45,22 ha):

Tipologia honetan bildutako unadak, hobekuntza mozketen izaera izango duten behetik egingo diren bakanketa selektiboak jasango dituzte eta, beraz, aleen arteko lehiaren murrizketak eragingo duen garapena sustatuko da. Orokorrean, bakanketa lanak, azpibasoa dauden hostozabalak ahal den gutxien kaltetuz egingo dira eta, halaber, haga baso adin naturala gainditzten duten *Acer* (Astigar), *Sorbus* eta *Quercus* genero e.a.-en ale dominante eta kodominanteek konifero aleen aurrean lehentasuna izango dute.

Egin beharreko basogintza tratamenduen intentsitatea: Unada bakoitzean egin beharreko bakanketaren intentsitatea unada koadernoan zehazten bada ere, orokorrean, tipologia honetan egin beharreko tratamenduak pisu ertainekoak (AB-aren %15-25-aren murrizketa) izango dira.

Egin beharreko basogintza tratamenduen maiztasuna: Bakanketa tratamenduen maiztasuna birlandaketaren hazkunde motaren arabera izango da. Hazkunde azkerreko birlandaketetan 5-8 urte bitarteko izango da. Hazkunde ertaineko konifero birlandaketetan aldiz, 8-10 urte bitartekoa izango da.

6. GARAPENEAN DAUDEN KONIFERO ZANGAR BASOAK (8,38 ha):

Tipologia honetan bildutako unadak, hobekuntza mozketen izaera izango duten behetik egingo diren bakanketa selektiboak jasango dituzte, eta beraz, aleen arteko lehiaren murrizpenak eragingo duen garapena sustatuko da. Orokorrean, bakanketa lanetan, azpibasoa dauden hostozabalak ahal den gutxien kaltetuz egingo dira.

Egin beharreko basogintza tratamenduen intentsitatea: Unada bakoitzean egin beharreko bakanketaren intentsitatea unada koadernoan zehazten bada ere, orokorrean, tipologia honetan egin beharreko tratamenduak intentsitate ertainekoak (AB-aren %15-25-aren murrizketa) izango dira.

Egin beharreko basogintza tratamenduen maiztasuna: Bakanketa tratamenduen maiztasuna birlandaketaren hazkunde motaren arabera izango da. Hazkunde azkerreko birlandaketetan 5-8 urte bitarteko izango da. Hazkunde ertaineko konifero birlandaketetan aldiz, 8-10 urte bitartekoa izango da.

7. GARAPENEAN DAUDEN HOSTOZABAL TANTAIK (9,79 ha):

Tipologia honetan Artia mendiak barneratzen dituen tantai adineko harizti eta ameztiak barneratu dira. Unada hauek, indarraldi honetan ez dute basogintza tratamendurik jasango.

8. GARAPENEAN DAUDEN HAGA BASO ADINEKO HOSTOZABAL BIRLANDAKETAK (11,20 ha)

Tipologia honetan bildutako unadak, hobekuntza mozketen izaera izango duten behetik egingo diren bakanketa selektiboak jasango dituzte eta, beraz, aleen arteko lehia murrizpenak eragingo duen garapena sustatuko da. Orokorrean, bakanketa lanetan, azpibasoan dauden hostozabalak ahal den gutxien kaltetuz egingo dira.

Egin beharreko basogintza tratamenduen intentsitatea: Unada bakoitzean egin beharreko bakanketaren intentsitatea unada koadernoan zehazten bada ere, orokorrean, tipologia honetan egin beharreko tratamenduak intentsitate ertainekoak (AB-aren %15-25-aren murrizketa) izango dira.

Egin beharreko basogintza tratamenduen maiztasuna: Bakanketa tratamenduen maiztasuna 8-10 urte bitartekoa izango da.

9. PAGO BASOAK(259,33 ha):

Tipologia honetan bildutako unadak pago baso irregularrak izan edo izateko joera duten unadak bildu dira.

Egin beharreko basogintza tratamenduen deskribapena:

Unada hauetan egin beharreko bakanketek hobekuntza eta birsorkuntza mozketak izaera izango dute, hau da, baso-masa irregularren entresakarena hain zuzen. Sartu diren unaden heterogeneotasuna handia da, baso mugarrotuak edo pagomotzak nagusi diren eremuak, basobera jatorriko aleak nagusi diren eremuak eta baso garai jatorriko aleak dauden eremuak tartekatzen baitira.

Basogintza tratamenduak ez dira unaden azalera guztian egingo, egun dauden pistek ahalbidetzen duten eremuetan baizik. Beraz, unada bakoitzak batazbesteko 100 metroko zabaleran duen irisgarritasunaren ikerketa egin ondoren, hurrengo ondorioetara iristen gara:

1. "Pago basoak" tipologia dauden unadek barneratzen dituzten 260 hektareatik, soilik, 81,56 hektareatan egingo dira basogintza tratamenduak.
2. Unada tipologiak barneratzen dituen 10 unadetatik, ART-A06 eta ART-C11 unadak garapen naturalera bideratuko dira eta, beraz, unada hauetan ez da ekintzarik egingo edo kudeaketa pasiboa egingo da.

3. Udallerriak duen su egur eskaera aztertuz, bost urtean behin 500 m³-ko lote bat aurreikusi da eta, beraz, 10 urteko indarrandian bi lote ateratzeko aukera izango da. Lehenengo lotea, ART-C07 eta ART-C22 unadetatik aterako da (guztira 40,11 ha). Bigarrenengo lotea berriz, ART-A10, ART-A16, ART-A18, ART-A25, ART-B31 eta ART-C20 unadetatik aterako da (guztira 38 ha). Aipatu, orain dela 10 urte inguru ART-A25 unadak birsorkuntza mozketan jasan zuela eta bertan egingo den ekintza, birsorkuntzaren sustaketa bilatzen den unada guztietan egin beharko den bezala, pago hazi ekoizpen handiko urtea aprobeztatzuz egin beharko dela.
4. Unada bakoitzetik atera beharreko egur bolumena, pagoaren hazkundearen arabera kalkulatu da. Izan ere, pagadien batzuetan besteko hazkundera 1,8-2 m³/ha-ko bitartekoa dela kontuan hartuz, eta ustiapen eremua 10 urteko maiztasunarekin errepikatuko dela kontuan hartuz, 18-20 m³/ha-ko gehienezko ustiapen bolumena finkatzen da. Halaber, kontuan hartutako hazkundera (1,8 - 2 m³/ha), batzuetan besteko hazkundera baino baxuagoa dela kontuan hartuz, pagadi irregularren izakinak gora egitea espero da.
5. Indarraldian, egur lote gehiagoren eskaintza sortuz gero, irisgarritasuna hobetzeko pista berrien irekiera beharrezkoa izango litzateke. Halaber, aurreikusi ez den egoera hau gertatuz gero, eremu berrietan egin beharreko basogintza eta hauen maiztasuna, azaldutakoaren berdina izango litzateke.

Hurrengo taulan, unada bakoitzean egingo den kudeaketa mota zehazteaz gain, unada bakoitzaren irisgarritasunaren araberrako ustiapen eremuaren azalera zehazten da:

UNADA ERREF.	Ustiapen eremua (ha)	Kudeaketa mota	Su egur loteak
ART-A06	0	K. pasiboa (Garapen naturala)	Bat ere ez.
ART-A10	10,46	Kudeaketa aktiboa	2. lotea
ART-A16	10,56	Kudeaketa aktiboa	2. lotea
ART-A18	2,35	Kudeaketa aktiboa	2. lotea
ART-A25	8,09	Kudeaketa aktiboa	2.lotea
ART-B31	6,63	Kudeaketa aktiboa	2. lotea
ART-C07	13,10	Kudeaketa aktiboa	1. lotea
